



HAURREN MUNDUKO EGUNA 2021

UDAL TALDEEN ADIERAZPENA

UDALA: ERMUA

Ermua Udaletik, UNICEFekin elkartzen gara Haurren Munduko Eguna ospatzera. Hainbat erronka oraindik lortu gabe ditugula gogora ekartzeko eguna da hau, duela 30 urte baino gehiago Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena berretsi duen Estatu batean haurren eskubideak errealitate bat izan daitezen gure hiri eta herrietan.

Gaur egun, haurrek eta nerabeek hainbat erronkari egiten diete aurre, besteak beste: pobrezia, krisi klimatikoa, desberdintasunak, COVID-19aren ondorioak... Orain beren ongizate-maila ez ezik, bihar garatzeko eta bizirauteko izango dituzten aukerak ere arriskuan jartzen ari diren erronkak, alegia.

Irtenbideak bilatzeko bidean, tokikoa eta globala eskutik doazen ikuspegi baten alde gaude gu. Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko Aliantza baten alde, Agenda 2030ean proposatu bezalaxe, zeinarekin hartua dugun konpromisoa. Tokikoa, gure udalerrian, gure ingurune hurbilenean, gertatzen denaren gainean ezarrita gure begirada, gure herritarretako batzuek, haurrek, dituzten eskubideetan aurrera egiteko neurriak hartuta. Globala, haurren eskubideetara —askotan ikusezinak iritzi publikoarentzat— hurbilduta eta haiekin konpromisoa hartuta, kontuan izanik aurrekaririk gabeko egoerak (gerrak, lehortekak, indarkeria...) jasaten dituztela, pandemiaren hasieratik areagotuak.

Horregatik, ondokoetara bideratutako neurriak bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu:

1. Haurren eta nerabeen eskubideak gure ekintza politikoaren erdigunean kokatzea

Epe luzeko estrategiekin eta baliabideekin, benetako emaitzak lortzeko, administrazio honetan hartutako erabaki guztietan haurrak eta nerabeak aintzat hartuta, bai krisiei erantzuteko garaian, bai susperraldian, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren printzipio gidarien esparruan, baita haurren eskubideen sustapenean tokiko gobernuaren arlo guztiak inplikaturik ere, korporazioko arlo guztiek modu koordinatu batean helburuak eta ekintzak ezarri.

2. Osasun mentalean inbertitzea

COVID-19ak modu kezagarri batean eragin du osasun mentaleko nahasmenduak areagotzea haurren eta nerabeen artean. Hortaz, tokiko mailan, eskueran ditugun

baliabideak bideratuko ditugu arazo horri arreta handiagoa emateko, bereziki familia kalteberenen kasuan.

3. Teknologiaren erabilera segurua, arduratsua eta kritikoa bermatzea

Pandemiaren ondoren eta urrutiko hezkuntza iritsi denetik antzeman denez, esponentzialki handitu dira haurren eta nerabeen konpetentzia digitalak. Tresna digital gehiago eta sare sozialetarako sarbide handiagoa izateak aukera gehiago eskaintzen dizkie, baina horrek ere esan nahi du online arriskueta batzuetatik gertuago daudela. Horregatik, gure udalerritik, konpromisoa hartzen dugu alderdi hauetan laguntzeko: baliabide teknologikoetarako sarbide ekitatiboa; gure haurren eta nerabeen konpetentzia digitalen hobekuntza; eremu digitalean babes-ingurune baten garapenaren sustapena; eta eragile guztien (familiak, ikastetxeak, Erakundeak eta Enpresak), haurren eta nerabeen sentsibilizazioa eta heziketa Harremanetarako, Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologien erabilera segurua eta arduratsua sustatzeko.

4. Haurrei eta nerabeei benetan, aktiboki eta etengabe entzuteko aurrerapausoak ematea

Egia da aurrerapausoak ematen ari direla haurren eta nerabeen partaidetzan tokiko mailan, baina haiei benetan, aktiboki eta etengabe entzuteko mekanismoak indartzea funtsezkoa da haurrek eta nerabeek herritar aktiboak direla ikus dezaten, beren ikuspegiarekin eta proposamenekin lagundu dezaketela, eta aintzat hartuak direla. Hala, tokiko korporazioak barneratuta eduki behar du partaidetza hori gardena, lagunkoia, kontu-emailea, arrisku posibleekiko sentikorra dela eta protagonistak haurrak eta nerabeak direla bermatzeko konpromisoa.

5. Krisi klimatikoari heltzea

Klima-aldaketa Gizadia aurre egiten ari zaion erronka handienetako bat da eta, inork baino gehiago, haurrek sufrituko dituzte gelditasun politikoaren ondorioak. Hala ere, haurrek ez dute ikusten entzuten zaienik beti, edo irtenbide baten bila aktiboki laguntzeko aukera ematen zaienik. Tokiko mailan, gure erantzukizunetik, konpromisoa hartzen dugu UNICEFek arlo hauetan egindako eskaera nagusietan laguntzeko: CO2 emisioak murriztea; klima-aldaketara egokitzeko inbertsioa handitzea; gure hiriak berdeagoak izan daitezen lortzea, mugikortasun aktibo eta jasangarri bat bultzatzea, ingurumen-hezkuntza sustatzea; gure haurrak eta nerabeak barnean hartzea ingurumen-erronkari buruzko erabakiak hartzerakoan gure udalerrietan, eta COVID-19aren susperraldi berde bat bermatzea.

Agenda 2030ak markatzen digun bideari jarraitzen diogu, gure haurrak erronka hauei zuzendutako erantzunaren erdigunean kokatuta. Gaur, 2021eko azaroaren 20an, Haurren Munduko Eguna ospatzen dugu, guztiok behartzen gaituen konpromiso hauekin, gure Ermua etorkizunaren alde.

Ermuan, 2021eko azaroak 20